

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Agindua 156/2026, martxoaren 13koa. Onestea landako askotariko zerbitzuak eta herritarrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko dirulaguntzen deialdia

Laguntza hauen helburua da 1.000 biztanletik beherako herriguneetan egiten diren inbertsioak finantzatzen laguntzea, herrigune horretan gaur egun ez dauden askotariko landa zerbitzuak eskaintzeko negozioak ezarri ahal izateko, bai eta lehendik dauden instalazioak egokitu, handitu edo hobetzeko, baldin eta herri horretan negozio horretan bakarrik ematen bada askotariko landa zerbitzu jakin bat. Laguntzak 20.000 biztanletik beherako udalerrietarako izango dira.

Negozio horietan, batez ere merkataritza jardueri dagozkien zerbitzuak eman behar dira, eta, haien osagarri, turismo, jatetxe eta telekomunikazio zerbitzuak, bai eta gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetan dauden beste gabezia batzuk estaltzekoak ere. Hala, negozioak janari dendak edo taberna-dendak izan daitezke, edo aipatutako herriguneetan gaur egun finkatuta ez dauden beste batzuk, hala nola ile apaindegiak, podologia zerbitzuak, masajistak eta abar.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak badaki landa eremuan bizitzeak zailtasunak dituela, eta mugak izaten direla toki horietan zerbitzuak izateko. Horregatik, landa eremuan garapen ekonomikoa sustatze aldera, landako askotariko zerbitzu horiek ezarri, handitu eta hobetu daitezen sustatu nahi du, herriguneetako gizarte jarduera dinamizatzen ere lagunduko baitute.

Horregatik guztiagatik, Foru Gobernu Kontseiluaren 2025eko urtarrilaren 14ko 1/2025 Foru Dekretuaren bidez (2025eko urtarrilaren 24ko ALHAO, 9. zenbakia.), Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntza horien oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren, lokalen egokitzapena eta ekipamendua finantzatzeko eta honako instalazio hauek abian jartzeko, handitzeko eta hobetzeko:

a) Landako askotariko zerbitzu deritzen saltegiak; funtsean, merkataritza eta jatetxe jarduerak.

b) Landa biztanleentzako gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetako beste gabezia batzuk betetzeko zerbitzuak. Halakoetan, etxera eramateko/joateko zerbitzua diruz lagundu ahal izango da, moduluen bidez, baldin eta negozioa 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera jarri bada abian.

Horren bidez, landa eremuan merkataritzak betetzen duen funtzio soziala sustatu nahi da, landako askotariko zerbitzu horiek ezartzen lagunduz.

Kontuan hartuta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 7.a) artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.3.a) artikuluan jasotako publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatu behar direla dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, deialdi hau aurkezten da, zeinak landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko aipatutako gastuak finantzatzeko laguntzak arautuko baititu.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Bestalde, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdian kontuan hartu da euskararen erabileraren alderdia, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Nahitaezko txostenak aztertuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea landako askotariko zerbitzuak eta herritarrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko dirulaguntzen deialdia.

Deialdi hori dekretu honen eranskinean dago.

Oinarri arautzaileak Foru Gobernu Kontseiluaren 2025eko urtarrilaren 14ko 1/2025 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren (2025eko urtarrilaren 24ko ALHAO, 9. zenbakia.).

Bigarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako aurrekontuan jasotako aurrekontu partida hauen kontura emango dira: "10202. G/414100/76290110 Landako Askotariko Zerbitzuak Garatzeko Programa. Inbertsioak", 97.500,00 euroz hornitua, eta "10202. G/414100/46290105 Askotariko zerbitzuak garatzeko programa", 2.500,00 euroz hornitua.

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinik izanez gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

Deialdiaren zenbatekoa gehienez ere ehuneko 40 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe.

Hirugarrena. Era honetan ordainduko dira dirulaguntzak:

Inbertsioetarako dirulaguntzak:

– Zenbateko osoaren ehuneko 50, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak dirulaguntzak emateko ebazpena eman ondoren, eta onuradunak inbertsio kontratuaren kontratua edo adjudikazio ebazpena aurkeztu ondoren.

– Gainerako ehuneko 50a, berriz, onuradunek dirulaguntzaren xede den jarduerari lotutako gastuen eta ordainketen justifikazioa aurkeztu ondoren.

Joan-etorrietarako dirulaguntzak:

– Zenbatekoaren ehuneko 100, dirulaguntzaren xede den jarduera bete dela egiaztatzen denean.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradun bakoitzari ordainketa izenduna egingo zaio.

Laugarrena. Frogagiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 30a izango da.

Etxera joan/eraman behar izanez gero, 2026ko azaroaren 30era arte emandako egiaztagiria aurkeztu beharko dira, ereduaren arabera, 2026ko abenduaren 15a baino lehen.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da.

Seigarrena. Administrazio bidean behin betikoa den foru agindu honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuari, hilabeteko epean, administrazio egintza hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, administrazio egintza hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta

124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 13a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

ERANSKINA

Landako askotariko zerbitzuak eta herritarrentzako bestelako zerbitzuak ezarri, zabaldu eta hobetzeko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko dirulaguntzen deialdia

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honek diruz lagun daitezkeen lerro hauek izango ditu, ezarpenari, hedapenari eta hobekuntzari dagokienez:

a) Landako askotariko zerbitzu deritzen saltegiak; funtsean, merkataritza eta jatetxe jarduerak.

b) Landa biztanleentzako gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetako beste gabezia batzuk betetzeko zerbitzuak. Halakoetan, etxera eramateko/joateko zerbitzua diruz lagundu ahal izango da, moduluen bidez, baldin eta negozioa 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera jarri bada abian.

Landa eremuan merkataritzak betetzen duen funtzio soziala sustatu nahi da, landako askotariko zerbitzu horiek ezartzen lagunduz.

Laguntza lerro honen oinarri arautzaileak, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 14ko 1/2025 Erabakiaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren, 9. zenbakian, 2025eko urtarrilaren 24an.

Bigarrena. Laguntzen onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak eta pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

Etxera joan/eramateagatik laguntzaren onuradun izateko, beharrezkoa da laguntza hori eskatzea eta, gainera, gizarte, enpresa edo lanbide zerbitzuetan dauden beste gabezia batzuk betetzeko zerbitzuen dirulaguntza lerroaren onuradun izatea.

Lokalen jabetza publikoa edo pribatua izan ahalko da. Eskatzailea ez bada jabea, higiezinaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du, bai eta jabeak jarduketak egiteko emandako baimena ere.

Ezingo dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluari aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira laguntza lerroen xedearekin zerikusia duten ekintzak, jarduera hori ez dagoen 1.000 biztanletik beherako herriguneetan egiten badira edo, helburua zerbitzua hobetzea edo handitzea izanik, establezimendu hori bakarrik dagoen gunetan egiten badira. Inbertsioak 2026ko urtarrilaren 1a baino geroago hasitakoak izan beharko dira.

Joan-etorrietarako laguntzaren kasuan, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako joan-etorriak lagunduko dira diruz.

Inola ere ez dira diruz lagunduko 20.000 biztanletik gorako udalerrietako jarduketak.

Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak; bai eta zeharkako zergak ere, onuradunak ordaindu behar baditu eta ezin badizkio hirugarrenei ordainarazi.

Horrela, diruz lagundu daitekeen aurrekontuan sartu ahal izango dira dirulaguntza hauen helburuarekin lotuta toki erakundeek eta enpresariak edo profesionalek egiten dituzten gastuak.

Onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

Ez dira diruz lagunduko laguntza lerro honen aurreko deialdietan dirulaguntzak jaso dituzten jarduketak.

Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

Askotariko zerbitzuetarako gehieneko zuzkidura 60.000,00 euro izango da hasiera batean. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehienez ere 25.000,00 euro.

Herritarrentzako zerbitzuekin lotutako inbertsioetarako gehieneko zuzkidura 37.500,00 euro izango da, hasiera batean. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eko dirulaguntza jaso dezake eskaera bakoitzak, eta gehienez ere 25.000,00 euro.

Joan-etorrietarako gehieneko zuzkidura 2.500,00 euro izango da hasiera batean. Landako askotariko zerbitzua dagoen herrigunetik kanpo egindako joan-etorri bakoitzeko 0,15 euroko modulu bat lagundu ahal izango da diruz eskaera bakoitzeko, eta, gehienez ere, 2 euro emango dira joan-etorriko.

Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026. urterako aurrekontuan jasotako aurrekontu partida hauen kontura emango dira: "10202. G/414100/76290110 Landako Askotariko Zerbitzuak Garatzeko Programa. Inbertsioak", 97.500,00 euroz hornitua, eta "10202. G/414100/46290105 Askotariko zerbitzuak garatzeko programa", 2.500,00 euroz hornitua.

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinik izanez gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

Deialdiaren zenbatekoa gehienez ere ehuneko 40 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen denean hasiko da, eta hilabetekoa izango da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoan:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/landa-eremuan-askotariko-zerbitzuak>.

Baldin eta aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreka Zuzendaritzak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko die hala egin ezean artxibatu egingo dela eskaera, ulertuko baita atzera egin dutela eskaeran.

Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Espedientea instruitzeko eskumena daukan organoa Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzua da.

Laguntzak jaso ahal izateko, nahitaezkoa izango da agiri hauek aurkeztea edo administrazioak horiek lortzearen kontra ez egitea:

a) Dirulaguntza honen administrazio izapidea egiteko, Arabako Foru Aldundiak behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden interesdunen datuen inguruan, bai eta behar diren gainerako guztiak ere. Hori dela eta, dirulaguntzen eskatzaileei ez zaizkie eskatuko administrazioek elkarri eman ahal dizkieten datuak, baldin eta interesdunak datuak erabiltzearen aurka egiten EZ badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak elkarri emateko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioaren bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuen kasuan, datu hauek bilduko dira elkarreragingarritasunez, interesdunak aurka egiten ez badu:

- Eskatzailearen NANA.

- Eskatzaileari buruzko ziurtagiria, dagokion ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu dituela egiaztatzen duena, baldin eta aplikatzekoa den araudiaren arabera beharrezkoa bada.

- Eskatzaileak norberaren konturako jarduerak egiten baditu, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, baldin eta aplikatzekoa den araudiaren arabera beharrezkoa bada.

b) Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Gizarte Segurantzarekiko kuotak eta zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

- Dirulaguntza publikoen onuradun izateko debekurik ez duela adierazten duen eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

- Eman nahi diren zerbitzuak ematen dituen enpresa jarduerarik ez dagoela adierazten duen udal ziurtagiria.

- Enpresa plana, teknikari eskudunek egina. Hartan, gauzatu nahi den jarduera ezartzea lortzeko planteatutako jarduketei ekiteko beharra azaldu behar da, bai eta emango diren zerbitzuak, modu eraginkorrean ezartzeko aurreikusitako egutegia, inbertsio kostua, bideragarritasun azterketa eta jarduera gauzatzeko erabiliko den lokalaren plano xehatua ere.

Egin beharreko inbertsioen memoria baloratua edo, egin beharreko jarduketa motarako beharrezkoa bada, obra gauzatzeko aurreproiektua edo proiektua.

- Obretarako udal lizentziaren kopia edo haren eskaera, bai eta sektoreko beste baimen batzuen kopia ere, horiek eskatzea nahitaezkoa bada. udalen kasuan, obretarako udal lizentziaren orde, hirigintza txostena.

- Joan-etorrietarako laguntza eskatuz gero, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emandako datoren egiaztapena

- Diruz lagundu daitekeen kontzepturako eskatutako eta jasotako laguntzen ziurtagiria, edo, hala badagokio, helburu bererako beste laguntza batzuk jaso edo eskatu ez izanaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan, gainera, onuradunari aurreko ekitaldietan xede eta helburu bererako emandako dirulaguntza guztiak jaso behar dira, nahiz eta proiektu beraren fase edo alderdi desberdinetarakoak izan.

- Ordezkarri baten bidez jardunez gero, ordezkaritza baimentzeko agiria aurkeztu beharko da, deialdi honetan ordezkatuaren izenean esku hartzeko gaitzen duena ordezkaria.

- Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Erakunde eskatzailea toki erakunde bat bada, hauek ere aurkeztu behar ditu:

- Organo eskudunaren erabakia, honako hauek jasotzen dituen: instalazioak dirulaguntza edo antzekoa eskatzen den erabilerarako mantentzeko konpromisoa, aldaketa justifikatzen bada, eta udalaren edo kontzejuaren esku dauden eta kudeatzailearen bideragarritasun ekonomikoa ahalbidetzen duten jarduketak errazteko edo bultzatzeko konpromisoa, eta kudeaketa oztopa dezakeen jarduketarik ez egitekoa.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak emateko prozedura. Dirulaguntzak baloratzeko, banatzeko eta kuantifikatzeko irizpideak

Dirulaguntzak nori eman norgehiagoka bidez ebatziko da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren 150,00 eurora iristen ez diren eskaerek.

Dirulaguntzak emateko modua norgehiagoka prozedura denez, baldin eta aurrekontu esleipenarekin ezin badira aurkeztutako eskaera guztiak diruz hornitu, honela jokatu da hautatzeko zer jarduera lagunduko diren diruz:

Lerro bakoitzean dirulaguntza jaso dezakeen aurkeztutako eskaera bakoitzak puntuazio balio bat izango du, eta, era horretan, deialdi honetan eskatutako jarduketa bakoitza ordenatu ahal izango da, eta dirulaguntzak esleitzeko lehentasun ordena bati jarraituko zaio. Lehentasun ordena hori honako banaketa irizpide objektibo hauetan oinarrituko da:

– 50 puntu: 2025eko urtarrilaren 1ean udalerririk zuen biztanleria dentsitatearen alderantzizkoa. Honela definitzen da biztanleria dentsitatea: udal zuzenbidezko biztanleria zati udalerriko azalera metro koadrotan.

Formula hau aplikatuko da:

$$P_i = D_p / D_i * 50$$

D_p biztanleria dentsitate txikiena da, eta D_i baloratzen den udalerriko biztanleria dentsitatea.

– 30 puntu: 2025eko urtarrilaren 1eko udalerriko zuzenbidezko biztanleria osoaren 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoaren arabera.

Formula hau aplikatuko da:

$$P_i = P_{oi} / P_{op} * 30$$

P_{op} 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekorik handiena da, eta P_{oi} baloratzen den udalerriko 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoa.

– 20 puntu: 4.000 biztanletik gorako herrigune baterainoko distantzia handienaren arabera.

Formula hau aplikatuko da:

$$P_i = D_{li} / D_{lp} * 20$$

D_{lp} 4.000 biztanletik gorako herrigune baterainoko distantzia handiena da, eta D_{li} baloratzen den herrigunetik 4.000 biztanletik gorako herrigune bateraino dagoen distantzia.

Eskaera bakar bat onartuko da zerbitzu eta herrigune bakoitzeko; hain zuzen ere, oinarri honen arabera puntuazio handiena lortu duena.

Zortzigarrena. Ebazpena

Inbertsioei dagozkien laguntzak lortutako puntuen arabera banatuko dira, deialdi hone-tako saldoa agortu arte. Zenbait pertsona edo erakunde eskatzaileraren artean puntu berdinketa gertatuz gero, eta aurrekontu baliabideen zenbatekoa nahikoa ez bada berdinketa dutenek eskatutako laguntzak finantzatzeko, zenbatekoak hainbanatu egingo dira, saldo erabilgarriaren mugara iritsi arte.

Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Hauek izango dira batzordekideak:

- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuko teknikari bat.

Balioespen batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu oinarrietan eta deialdian eza-rritako betekizunen arabera, eta txostena egingo du, non zehaztuko baitu betekizunak zenba-teraino bete diren, eta eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du, aurreko apartatuan ezarritako irizpide eta baremoen arabera.

Ez da egingo entzunaldiko izapiderik; izan ere, erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak bakarrik hartuko dira kontuan ebazpenean.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Oreka eta Lurralde An-tolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebatziko ditu, dagokion foru aginduaren bidez, deialdia ALHAOn argitaratu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Joan-etorrietarako laguntzei dagokienez, hamaikagarren oinarrian jasotako egiaztagiriak aurkeztu ondoren, foru agindu bidez ebatziko da laguntza ematea.

Administrazio bideari amaiera emango dion ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaite-gietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein onuraduni eman zaien, eta berariaz adierazi beharko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla. Ebazpenean, alde-koa bada, honako hauek adierazi beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean ez egitearen ondorioak.

Bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatu-takoarekin, prozeduraren ebazpenak ALHAOn argitaratuko dira eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunen batek uko egiten badio (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik aurrera), dirulaguntza hurrengo eskatzaileei eman ahal izango zaie, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren muga

Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoak, beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuekin batera, ezingo du gainditu pertsona edo erakunde onuradunek egin beharreko birgaitze jar-duketen kostua.

Hamargarrena. Jarduera gauzatzea eta onuradunaren betebeharrak

Inbertsioei dagokienez, onuradunak laguntza ekonomikoa erabili beharko du bere lokaletako edo errentan hartutako obrak edo ekipamenduak egiteko, eta 2026ko irailaren 30a baino lehen egin beharko ditu.

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, salbuespenezko kasuetan eta dagokion justifikazioa onartu ondoren, gauzatze epea luzatu ahal izango du. Luzapen horren iraupena jarduketa zehatzaren 2026ko azaroaren 15era arteko egoeraren arabera finkatuko da, baldin eta interesdunak hasierako epea amaitu baino lehen eskaera justifikatua egiten badu.

Joan-etorrietarako dirulaguntzaren kasuan, epea 2026ko azaroaren 30ekoa izango da.

Jarduera egiteko erabiltzen diren lokaletako obren edota altzarien kostuak finantzatzeko soilik erabili ahal izango da Arabako Foru Aldundiak emandako laguntza, edo landa zerbitzuak etxeetara eramateko egiten diren joan-etorriak kontratatzearen gastuak ordaintzeko.

Toki erakundearen eskaerei dagokienez, erakunde onuradunak hautatuko du dirulaguntzaren xede izango den jardueraren kudeatzailea, eta, horretarako, hautaketa irizpide objektiboak aplikatu eta baloratu beharko ditu. Enpresa kudeatzaileak ezin izango du bost langile baino gehiago izan. Salbuespena izango da jarduera jada egiten ari bada.

Onuradunak izango du garatutako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak eskatzearen ardura, eta instalazioan eta jarduera egitearekin lotutako kudeaketan sortzen den edozein gorabeheraren berri eman beharko du.

Programa honen bidez diruz lagundutako jarduerak legezkoak diren egiaztatu ahal izango du Aldundiak, eta onuradunak utzi egin behar dio Aldundiari jarduera kontrolatzen eta ikuskatzen. Kontrola egiten den unean Foru Aldundiaren esku jarri beharko dira dokumentu hauek:

– Obren edota ekipamenduen eta altzarien gastuen eta ordainketen jatorrizko egiaztagiriak eta kopia konpultsatuak.

– Tokiko erakundearen eta jarduera egiteko hautatutako pertsonaren arteko harremana egiaztatzen duten ziurtagirien jatorrizkoak eta kopia konpultsatuak.

– Inbertsioarekin eta jarduera abian jartzearekin zerikusia duen beste edozein dokumentu edo aurrekari.

Instalazioak amaitu eta ekipamenduz hornitzen diren egunetik aurrera, jarduera martxan jarri behar da obrak amaitu eta sei hilabete igaro baino lehen. Justifikatutako arrazoiengatik, hiru hilabeteko bi luzapen eman ahal izango dira gehienez. Justifikatutako arrazoi horiek ezin bazaizkio onuradunari egotzi, horiek ebatzi arte atzeratu ahal izango da abian jartzea.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Pertsona fisiko edo juridiko onuradun bakoitzari ordainketa izenduna egingo zaio.

Era honetan ordainduko dira dirulaguntzak:

Inbertsioetarako dirulaguntzak:

– Zenbateko osoaren ehuneko 50, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak dirulaguntzak emateko ebazpena eman ondoren, eta onuradunak inbertsio kontratuaren kontratu edo adjudikazio ebazpena aurkeztu ondoren.

– Gainerako ehuneko 50a, berriz, onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduerari lotutako gastuen eta ordainketen justifikazioa aurkeztu ondoren.

Joan-etorrietarako dirulaguntzak:

– Zenbatekoaren ehuneko 100, dirulaguntzaren xede den jarduera bete dela egiaztatzen denean

Dirulaguntzen justifikazioak justifikazio kontu sinplifikatuaren forma izango du, eta honako hauek osatuko dute:

a) Obra amaierako proiektuaren kopia, ikus-onetsia, edo, egin beharreko birgaitze motarako proiekturik behar ez bada, jarduketa memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazi beharko dira.

b) Izandako gastu guztien zerrenda sailkatua. Zerrenda horrek gastu bakoitzari buruzko honako datu hauek jaso behar ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna, zenbatekoa, emate data eta ordainketa data.

c) Gastua egiaztatzen duten fakturak eta haien ordainagiriak.

d) Nahitaezkoa bada, udal lizentziaren kopia, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala likidatua, eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordainagiria. Onuraduna udal bat bada, hirigintza txostena aurkeztu beharko da.

e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta jasotako edo eskatutako dirulaguntzen xehetasuna; zenbatekoa eta jatorria adierazi behar dira.

f) Aplikatu ez den gerakinik izanez gero, itzulketaren ordainketa gutuna, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Etxera eramateko/joateko zerbitzuaren moduluak egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dirulaguntzaren xede den etxera eramateko/joateko zerbitzua gauzatzeari buruzko informazioa jasotzen duen justifikazio memoria bat. Hauek jaso beharko dira: etxera eramateko/joateko zerbitzuaren azalpena, joan-etorri kopurua, egindako kilometro kopurua eta gauzatu beharreko moduluen kuantifikazioa.

b) Etxera eramatearen/joateren gastuen kasuan, modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztapena, deialdi honen eranskineko ereduaren arabera.

Frogagiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 30a izango da.

Etxera joan/eraman behar izanez gero, 2026ko azaroaren 30era arte emandako egiaztagiria aurkeztu beharko dira, ereduaren arabera, 2026ko abenduaren 15a baino lehen.

Hamabigarrena. Informazioa eman beharra

Dirulaguntza jasotzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia ematera.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio dirulaguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntzarik eta/edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin duen, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

Hamahirugarrena. Dirulaguntza galtzea

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldeztatik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

Espedientea dela eta dirulaguntza galduz gero, aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

Hamalagarrena. Babesletza

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak dirulaguntza eman duela aipatu beharko da berariaz. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatu beharko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabili beharko dira.

Inbertsioa egiten hasten denetik amaitu eta sei hilabete igaro arte, ondo ikusteko lekuan jarri beharko da inbertsioari buruzko informazioa ematen duen kartel bat. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak emango du kartela.

Hamabosgarrena. Publikotasuna

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Hamaseigarrena. Errekurtsoak

Deialdi honi eta deialdiaren ondoriozko administrazio egintzei Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak xedatutako egoeretan eta eran egin ahal izango zaie aurka.

Hamazazpigarrena. Azken klausula

Dirulaguntzaren deialdi honetan eta oinarri orokorretan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava
www.araba.eus

**DOCUMENTO DE JUSTIFICACIÓN DEL DESPLAZAMIENTO A
DOMICILIO, PARA AQUELLOS NEGOCIOS QUE HAYAN
INICIADO SU ACTIVIDAD A PARTIR DEL 1 DE ENERO DE 2025.**

**ETXEZ ETXEKO JOAN-ETORRIAREN JUSTIFIKAZIO-AGIRIA,
2025eko URTARRILAREN 1etik AURRERA JARDUERA HASI
DUTEN NEGOZIOENTZAT.**

Ejercicio 2026 Ekitaldia

**BEHEAN SINATZEN DUTENEK ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUTE
ADIERAZITAKO DATAN ENPRESABURUAK ZERBITZU BAT EMAN DIOLA
BEZEROARI BEZEROAREN ETXEAN:**

**LOS DEBAJO FIRMANTES, DECLARAN RESPONSABLEMENTE QUE EN LA
FECHA SEÑALADA, EL EMPRESARIO HA PRESTADO UN SERVICIO AL CLIENTE
EN EL DOMICILIO DEL CLIENTE:**

ENPRESABURUA ■ EMPRESARIO/A

NAN ■ DNI

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

Helbidea ■ Domicilio

Herria ■ Localidad

BEZEROA ■ CLIENTE

NAN ■ DNI

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos

Helbidea ■ Domicilio

Herria ■ Localidad

Data ■ Fecha _____

Enpresaburuaren sinadura ■ Firma empresario/a

Bezeroaren sinadura ■ Firma cliente

DATU PERTSONALEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta T56 LURRALDE OREKAREN SAILAREN LAGUNTZAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Lurralde Orekaren Sailak emandako laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzea, kudeatzea eta, hala badagokio, itzultzea (norgehiagoka prozedurak, lehia askea eta zuzeneko emakida). Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, salbu eta legez baimenduta dagoen kasuetan.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia Plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Araba) edo Datuak Babesteko Ordezkararen bidez (dbo-dpd@araba.eus).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de T56 AYUDAS DEL DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL para la finalidad de tramitación, gestión y posterior reintegro, en su caso, de ayudas y subvenciones otorgadas por el Departamento de Equilibrio Territorial (procedimientos de concurrencia competitiva, libre concurrencia y concesión directa). Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava) o a través del Delegado de Protección de Datos (dbo-dpd@araba.eus).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>